



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arrantza.udala@terra.es

2011KO ABENDUAREN IEKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2011.12.01.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunari jarritako zehapen espedienteari buruz.
- 3.-Udal eraikinen garbiketa zerbitzua.
- 4.-Udalbide:diru laguntza eskaera.
- 5.-Anguleroko nabeari buruz eskatutako balorazioa.
- 6.-Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko egunari buruzko manifestua.
- 7.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko barne karguen hauteskundeen gaineko mozioa.
- 8.-Nafarroako transferentzia arrunten funtsaren 2011ko kuotaren murrizketari buruzko aurkako idatzia.
- 9.-Trenaren alde eta AHT-aren aurkako Nafar Hautetsien Sareko akordioa.
- 10.-Espainiako armada militarren presentzia salatzeako akordioa.
- 11.-Landa eremuko eskolei buruzko mozioa.
- 12.-Oronozko suhiltzaileen bilera deialdiari buruz.
- 13.-Bortzirriak Pilota Elkarte: diru laguntza eskaera.
- 14.-Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma: diru laguntza eskaera.
- 15.-2012ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespena.
- 16.-Alkatearen ebazpenak.
- 17.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2011ko azaroaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ALBERTO ETXEBESTE AIZPIOLEA JAUNARI JARRITAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEARI BURUZ.

Arantzako Alkateak, 2011ko urriaren 10eko 71. ebazpenaren bidez, Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunak 6. poligonoko 248. lur zatiko Lorbidoko Bordan egindako obrari zehapen espedientea hasteko eta baimenarik gabeko obrak botarazteko agindua eman zuen.

Ikusirik aipatutako ebazpenean jarritako isuna (60.000,00 euro).

Kontuan hartuz baimenarik gabeko obrak indarra duen antolamenduari erabat edo partzialki bateraezinak direla udaleko arkitektoen txostenaren arabera. Kasu horietan eraikin-instalazioak antolamendutik kanpoko eraikin eta erabileretarako ezarritako araubidearen menpe geldituko dira, eta segurtasun eta higienarako gutxieneko obrak baino ezin izanen dira egin haietan, baina inola ere ez sendotzekoak, balioa handitzekoak edo modernizatzeakoak (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 207. artikulua arabera).

Jaime Iturria, Imanol Artola, Jose Ignacio Madariaga eta Ander Almandoz jaunak botoa eman dute isuna jarri baino ez botarazteko obra.

Jose Javier Mitxelena jaunak adierazi du isuna ttikitu behar zaiola eta botarazi baimenarik gabeko obra.

Koldobike Gorostiza andreak ere isuna ttikiagoa jarri eta botarazteko aldeko botoa eman du.

Ondorioz, ERABAKI DUTE:

1) Alberto Etxebeste Aizpioleari jakinaraztea 71/2011 ebazpena bertan bera uzten dela eta Lorbidoko Bordan emandako baimenean gailentzen diren obrak hirigintzako arau-haustea larria kontsideratzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002ko abenduaren 20ko Foru Legearen 211. artikulua arabera, 60.000,00 euroko isuna jarritz.

2) Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunari jakinaraztea Lorbidoko Bordarako emandako baimenean gailentzen diren obrak ez botaraztea baino adieraztea horiek kanpoko eraikin eta erabileretarako ezarritako araubidearen menpe geldituko direla.

3.-UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA.

2011ko azaroaren 4an egindako bileran erabaki zen 2012. urterako Eskola, Medikua kontsultategia, Ludoteka eta Herriko Etxearen garbiketa zerbitzuaren esleipenerako baldintza plegua onartzea eta lehiaketan parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea irekitzea, 2011ko abenduaren 2ko eguerdiko 2ak arte.

Ondorioz, bihar bukatzen denez proposamenak aurkezteko epea, gaia mahai gainean utzi da.

4.-UDALBIDE:DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Udalbide elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Udalbide elkarteari diru laguntza ez ematea.



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

5.-ANGULEROKO NABEARI BURUZ ESKATUTAKO BALORAZIOA.

Udaleko arkitektoak egindako balorazioa aztertu da Anguleroko nabeari buruz: euren proposamenak eta aurrekontuak.

Aztertu da gaia eta proposatu da aurrera egitea edo ez nabearen jabearekin egon aurretik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.- Gaiarekin aurrera segitzea eta prozedura hastea zerbait egiten ahal den ikusteko.

6.-EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO MANIFESTUA.

Ikusirik emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko adostatutako proposamena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.-Berdintasunaren alde lanean jarraitzeko gure konpromisoa adieraztea, indarkeria sexista motako guztiak prebenitzeko eta ezabatzeko bide gisa.

- 2.-Indarkeria sexista salatzea eta elkertasuna adieraztea muturreko indarkeria horren ondorioz kolpatutako eta hildako emakumeei.

- 3.-Herriarrei gonbidatzea emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako jarrera hartu, indarkeria hori errotik kentzeko konpromiso indibidual eta kolektiboa eginez.

7.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOKO BARNE KARGUEN HAUTESKUNDEEN GAINEKO MOZIOA.

Ikusirik urriaren 15ean Nafarroako Udaleri eta Kontzejuen Federazioko Zuzendaritza Batzorderako karguak hautatzeko egindako bilera eta bertan proposatutako hautaketa sistema.

Honengatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko antzineko Zuzendaritza Batzordeak proposatutako hautaketa sistema antidemokratikoa eta errealitatea ordezkatzen ez duela salatzea eta eskatzea berehalakoan Nafarroako udaleri eta tokiko entitateen aniztasun ideologikoa ordezkatuko duen hautes-sistema demokratiko batengatik aldatua izan dadila.

- 2.-Bozketa sistema NUFKeko batzarreko kideen artean eztabaidatua eta bozkatua izan dadila, eta ez bakarrik Zuzendaritza Batzordeko kideen artean.

- 3.-Zuzendaritza Batzordeko eskualdeetako ordezkariak hautatzeko ezartzen diren eskualdeak irizpide errealetan oinarritu daitezela, Nafarroako mankomunitateen egitura administratiboarekin eta benetako geografiarekin bat datozenak.

- 4.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eskatzea iragan urriaren 15ko batzarrean Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzeko egindako bozketako emaitzak bertan behera utz ditzala.

8.-NAFARROAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN 2011KO KUOTAREN MURRIZKETARI BURUZKO AURKAKO IDATZIA.

Toki Administrazioko Departamentuak Transferentzia Arrunten FUNTSAREN 2011ko kuota murriztu du.

Horren arira Alkateak Zuzendari Nagusiari bidalitako idatziaren berri eman du; bertan aipatzen da murrizketak ez dutela azaroaren 20ko Toki Ogasunen gaineko 19/2008 Foru

Legea betetzen eta ez dela Nafarroako Parlamentuan ezarritakoarekin lotzen. Hortaz eskatu da 19/2008 Legeak ezarritako kopurua eta epea betetzea bertze bide batzuk hartu gabe, indarrean diren legeekin bat, gure eskubideak bete daitezten.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bat etortzea Alkateak bidalitako eskutitzarekin.

9.-TRENAREN ALDE ETA AHT-AREN AURKAKO NAFAR HAUTETSIEN SAREKO AKORDIOA.

Ikusirik trenaren alde eta Abiadura Handiko Trenaren aurkako Nafar Hautetsien Sareak bidalitako idatzia.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Abiadura Handiko Trenaren proiektua egiteko jarraitu den prozedura salatzea, informazio gardentasun eta parte hartze publiko gabeziek bultzatua baita.

2.- Abiadura Handiko Trena errefusatzea, proiektu antisoziala, ekologiaren aurkakoa, baliabideak xahutzen dituena eta bere nekazal eta lurralde inpaktu zein inpaktu fisiko, sozial eta ekonomikoak direla eta, jasanezina delako.

3.- Nafarroako Gobernuari bere ahaleginak aditu eta eragile sozialek osaturiko Garraioaren Behatokia sortzeari begira bidera ditzan eskatzea, gaia ingurune-iraunkortasun, zein jasangarritasun sozial eta ekonomiko irizpideei jarraiki ikertzeko.

10.-ESPAINIAKO ARMADAKO MILITARREN PRESENTZIA SALATZEKO AKORDIOA.

Joan den egunetan Espainiako armadak maniobra militarrik egin ditu zonaldean eta Arantzan ere. Hauek abisurik eman gabe egin dira.

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.- Militarren presentzia herrian salatzea eta alde egiteko eskatzea.

11.-LANDA EREMUKO ESKOLEI BURUZKO MOZIOA.

Ikusirik landa eremuko eskolei buruzko mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.- Aipatutako mozioa onartzea.

12.-ORONOZKO SUHILTZAILEEN BILERA DEIALDIARI BURUZ.

Alkateak adierazi du Oronozeko suhiltzaileek bilera deialdia egin zutela alkate guztiei, Almandoz eta Belateko tunelen egoera (euren arriskua eta segurtasuna) azaltzeko.

Bilera azaroaren 14an egitekotan zen baino bertan bera gelditu zen.

Denak horren berri izan dute eta jakinaren gainean gelditu dira.

13.-BORTZIRIAK PILOTA ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Bortziriak Pilota Elkarteak aurkeztutako 2012ko denboraldirako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bortziriak Pilota Elkarteari 150,00 euroko diru laguntza ematea.



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

14.-NAFARROAKO ONDAREAREN DEFENTSARAKO PLATAFORMA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Ondarearen Defentsarako plataformak aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Ondarearen Defentsarako plataformari diru laguntzik ez ematea.

15.-2012KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du 2012ko aurrekontuaren zirriborroa, aztertu eta aldaketak proposatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aurrekontuaren zirriborroa aztertzea eta batzorde eta herritarreei proposamenak aurkezteko eskatzea, eurek ere parte hartzeko urteko kontuetan.

16.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (85tik 93 arte).

17.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

18.- EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE.

Une historiko bizi dugu Euskal Herrian. ETA erakundeak borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da. Azken hamarkadetan bizi izan dugun konfrontazio armatua behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eszenatokiaren ateak ari dira irekitzen.

Gernikako Akordioan hitzartutakoari jarraiki, eta Aieten Nazioarteko Komunitateak zabalduetako mandatuaren norabidean, ETAREN erabakiak, gatazka politikoa, bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaitu. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, euskal preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan, ezinbestekoa da, "Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistirarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoa eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin: Preso guztiak Euskal Herrira ekartzea, dispertsioarekin amaituz, gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea, epaituak izateko zain dauden preso prebentiboei behin-behineko askatasuna ematea, legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe eta, azkenik, zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legedia indagegabetzea".

Euskal gizarteak urte asko daramatza preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoan aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, estatu espainiar zein frantsesari, beren legea betetzeko eskatzen.

Munduan eman diren prozesu politiko desberdinetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Era berean, konponbide politikoen

baitan, presoek ere parte izan behar dutelarik. Ziklo bat behin betikoz itxi eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria indarrez irekitzeko.

Azken asteetako hitz eta ekintzei begira jarriz, Madril eta Parisetik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispertsioak bere horretan jarraitzen du. Senitartekoez milaka kilometro egiten jarraitzen dute. Hamarnaka euskal presoek, Parot doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra betetzen jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat presoek baldintza kaxkarretan jarraitzen dute. Egoera hau errotik aldatzea eta atzerapenik gabeko urratsak ematea ezinbestekoa deritzogu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.-Udal honek, bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzen du. Hala nola, besteak beste, dispertsioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoen askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea.

2.-Udal honek datorren urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoen eskubideen alde burutuko den manifestaldiarekin bat egiten du.

3.-Norabide horretan eta mobilizazioa horren harira, abenduaren 16an udal honetako hautetsiek baraua egin eta eguerdiko 12tan konzentrazioa burutuko dugu.

4.-Gure udalerriko eragile guztiei deialdia luzatzen diegu urtarrilaren 7ko mobilizazioarekin bat egin eta beronen eskutan dagoena egin dezaten bere ekimen kultural, sozial eta kirolaren alorrekoen ordutegiak berau indartze aldera kokatu ditzaten.

5.-Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien gainetik giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena den artean osatu dezagun

Bertzerik gabe, gaueko 22:20ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn..

